

hemos indicado, pueda seguir siendo una obra de referencia esencial para la investigación y una herramienta útil para la salvaguarda de nuestro Patrimonio.

Ángel Armendariz Gutiérrez



ARRIEN, Gregorio; GOIOGANA Iñaki
El primer exilio de los vascos. Cataluña 1936-1939
 Barcelona : Fundació Ramon Trias Fargas; Bilbao :
 Fundación Sabino Arana Kultur Elkargoa, 2002. – 672
 p. : il. ; 25cm. – ISBN: 84-88379-55-2

Aipagai dugun liburu horren hitzaurrean, Hilari Raguerekek, ez historiagile gisa, baizik eta lekuko bezala, 1936.ko gerran izandako umearen oroitzapenez baliatuz, arrazoi osoz, dio: “Gure belaunaldikook gerra urtetako trauma gainditzeko gauza asko ditugu lau haizetara aldarrikatu beharra”. Antzeko zerbait erran genezake, tragedia horretara, hala edo nola, hurbildu garen historiagileok: Oraindik orain esparru zabal aunitz lantzeko eta hedatzeko zain ditugu ikasgai historiko hori gainditzeko.

Izan ere, Espainiaren gerra zibilari buruzko bibliografia oso ugari izan arren, gai horretako hainbat eremutan, Manuel Tuñón de Lararen errana ontzat emanik, oraindik “hutsune ozeanikoak” ditugu. Horietako bat, orain dela gutxi arte, gerra horrek sortarazi zuen erbesteratzearena izan da. Egia da fenomenu horren inguruan, bereziki kultura mailan, gauzatu ziren ekimenez aurrerapen historiografiko haundiak burutu direla azken urteotan. Horiek direla medio, biltzarrak biltzar, eta liburu mardul batzuei esker, gaur egun, erbestera jo zuten kulturgile askoren lanak, ekimenak eta hainbat gorabehera biografiko ezagunagoak ditugu.

Baina, kultur adierazpide eta goi mailako egile horietaz landa, populuaren erbesteratzeak ekarri zuen tragedia anitz bezain luzea, arestian aipatu dugun hutsuneen barruti nabarmenetan sar daiteke. European burutu diren ikerlanekin konparatuz gero, oso atzetik gabiltzala bistan dago. Pirineoz haruntza, oroimen liburuek, ikerlan historikoez, eleberriek, ikusentzunezko saioek eta filmek, Espainiako gerrarekin hasi eta Bigarren Mundukoarekin bukatu ez zen tragediaren oroitzapena berpiztu duten bitartean, hemen abiatu besterik ez dugu egin. Guadiana bezalako urtemugen ospakizunek noizbehinka historiaren auspoa puzten badute, oraindik orain jorratu gabeko landa dugu Espainiako gerra zibilaren ondorioz gauzatu zen erbesteratzearen historia. Eta oso kontutan izan behar dugu Europako eta Euskal Herriko historia osatzeko ezinbestekoa dugula miloika eta miloika gizakik pairatu zuten desherriratze guzti horiek azaltzea.

Ildo honetatik, lan mardula bezain aberatsa eskeini digute Gregorio Arrienek eta Iñaki Goleganak, hizpide dugun liburuaren bidez. Hiru ataletan eta 13 kapitulutan azaldu dituzte beraien ikerlanak, 1936.ko uztailek 18tik 1940.ko ekaina bitartean, Espainiako gerra zibila zela eta, euskaldun askok jasandakoaren historia azalarazteko. Bere liburua ez da gerra zibilaren beste historia bat, baina hor azaldutako pasarte

historiko guztiek zer ikusi zuzena dute 1936.ko udan lehertarazi zuten gatazkarekin. Jakina denez, abagune horretako atal garrantzitsu eta garrantzenetakoa, bortxaz eta indarrez, milaka gizaki erbesteratzea izan zen: Frantzian zehar, batzuk esparru kontzentrazioetan kokatzea, itsasoz bestaldera askok eta askok bigarren erbesteratzeak burutu behar izatea, eta Francok ezarritako diktadura zela medio itzulik eta itxaropenik gabeko erbestaldi luzeko hiltorian hamarkada luzetan zehar egotea.

Egileek, izenburuak argitzen digun legez, lehen erbestea jorratu dute zehaztasun osoz. 605 orrik osatzen duten liburu sendoa hiru atal haunditan –“Euskadiko gerra eta exodoa”; “Euskaldunak Katalunian”; “Frantzira erbestaldi berria”– banatu dute Goiganak eta Arrienek. Eskaintzen dizkiguten informazio oparoak eta jorratzen dituzten abagune desberdinak direla medio, erraz osa litezke hiru liburu desberdin, baina “hiruek bat eginik” erbesteari buruzko fresko bizi bezain haundia apaindu dute. Hori osatzeko Arteako eta Salamankako agiritegietatik erdietsitako dokumentazio andanaz baliatu dira. Zenbait ataletan agiriekiko menpekotasuna handiegi samarra suertatzen bada ere, jakin izan dute Arrienek eta Goiganak gerra horren gainean dagoen bibliografia erabiltzen, idazten zituzten eremu zehatzen testuinguru historikoak behar den bezala azaltzeko.

Aipatu ditugu hiru atal haundi horietan, erbesteratuek osatzen dute diskurtsu historikoaren ardatz edo soka sendo baten hari nagusia. Lehen eta bigarren ataletan, errate baterako, Euskadin eman zen gerraren laburpena eskaintzen badigute ere, erbesteratuen mugimenduek ematen diete bereiztasuna gerra horrek orain arte izan dituen ildo historikoei. 3. ataletik aurrera, Frantzia aldera egindako erbesteak eta Kataluniakoak hartzen dute protagonismo osoa. Lurralde-babesleku horri dagokionez, lau kapitulu luze eta esanguratsuen bitartez, Manuel Irujok eraturako ordezkaritzaren deskribapen zehatzaren berri emateaz gain, “Euzkadi en Cataluña” aldizkariak, eta euskal alderdi politikoen gehiengoaz luze mintzatzen dira Goiganak eta Arrienek idatziriko orrialdeak. Atal horietan egileek erabili dituzten agirien eraginez, zenbait alde oso aberatsak suertatzen diren bitartean, besteak beste Ebroko gudaldi odoltsuaz, Aragoiko fronteaz eta bakea lortzeko bitartekaritzaren aldeko saioretaz aritzen direnak beste batzuk, hala nola, Kataluniako erretagoardian zegoen egoerak zein testuinguru deskribapen zabalagoa beharko zutelakoan nago. Era berean, liburuan zehar behin eta berriro eskeintzen dizkiguten deskribapen biografiko aberats askoren ondoan, beste batzuenak arras umezurtz suertatzen dira. Oso eskertzekoa izanen zen, errate baterako hain ezagunak ez diren Jose Eizagirre edo Juan Jose Basterra bezalakoak zertzelada biografikoak azaltzea.

Liburu horren azken zatia, penintsula iberiarretik kanpo euskaldunek izandako erbesteratzeaz mintzo zaigu. Izan ere, 1936.ko udan hasitako amezgaiztoen eta galearen katemila latza izan zen Katalunia galtzea euskaldunentzat eta alde errepublikanoan burukatu zuten guztientzat. Jose Antonio Agirre eta Lluís Companysen, mugaz haruntzako urratsak jarraituz, milaka katalandarrekin batera, euskaldun askok 1939.z gerotzik Frantzia aldera jo behar izan zuten bigarren aldiz. Baina lur frantziarrean kokatu behar izan zutenak, 1936.koarekin gonparatuz, egoera berri bezain tamalgarrria izan zuten aurrez aurre: “Camps d’accueil” eufemismoaren pean izkutatzen ziren Kontzentrazio esparruena hain zuzen ere. 1939.ko neguko hilabetetan, Argelés sur mer, Barcarés, Saint Cyprien eta antzeko lekutan sortu ziren lehen kontzentrazio esparruez informazio andana luzatzen digute, “le camp des basques” deitu izan zuten Gursekoaren berri eman baino lehen. Eskertzekoa da liburu honek errealitate tragiko eta anitza den hori islatzea. Europa osoan zehar, gizaki askoren triskantzaren katea oinarritzko maila horien jatorriaren historia bilduta dugu orritxo horietan. Gursekoak, Euskal Herritik gertuen eta euskal herritarrentzat bereziki martxan jarrita izan zenak, arreta berezia izan du gure egileen aldetik. Frantzia aldean, Claude Lahariek idatziriko

“Le camp de Gurs, 1939-1945. Un aspect méconnu de l’histoire du Bearn” liburu baliotsuaren ondoan oso lan bikaintzat jo dezakegu hizpide dugun liburuan kontzentrazio zelai horri eskeintzen dioten atala. Era berean, Amerika aldera gauzatu zen bigarren erbestaldiaz eta hori laguntzeko sortu ziren SERE nahiz JARE bezalako elkarteek ikuspegi berri hainbat hedatzen dizkigute liburu horren azken kapituluetan. Ere mu historiko horiek, baita aurrezken kapituluarena den “EAJ eta CCSE” delakoaren arteko harremanez aritzen denak, aurrekari zenbait izan bazituzten ere, oraingoan bere leku eta esanahi berritua hartzen dute euskaldunen erbesteratzearen fresko orokor honetan. Amaitzeko, ez bairik gabe, 1936-1939.ko gerraren ondorioz suertatu zen erbesteratzearen historiara hurbildu nahi duen orok, hemendik aurrera liburu hau oso haintzat hartu behar duelakoan nago.

Josu Chueca



BREVE historia feminista de la literatura española (en lengua catalana, gallega y vasca)

Iris M. Zavala (coord. General). – Barcelona : Anthropos, 2000. - Vol. VI. – 20 cm. – (Pensamiento crítico/Pensamiento utópico). - ISBN: 84-7658-402-4

Azken urteotan literatur kritika espainiarraren esparruan argitaratu den libururik eta ekarpenik garrantzitsuenetakoa bezala agurtu behar dugu liburu hau. Liburu hau dukegu literatur kritikaren eremuan saiorik garrantzitsuena estatu espainiarreko nazionalitate eta hizkuntza arteko aniztasuna bere konplexutasunean aurkezteko. Are gehiago, Iris Zavalaren sarrera teoriko garrantzitsuak (“No hay cosas pequeñas”) efektu oso onuragarria du nazionalitateen eta generoen arteko ezberdintasun eta erlazioak agenda politiko nazionalista tradizionalen mendetasunetik askatzeko. Gerora liburu hau eredutzat hartu beharko litzateke antzeko proiektuak gararazteko emakumezkoen literaturaz beste esparrutan ere estatu espainiarreko literaturen aniztasuna azaldu nahi bada. Oraindik ere bada beste pauso bat hartu beharra amaieran azalduko dudana bezala, baina egun bilduma hau “state of the art” dugu.

Hiru literatur nazional aztertzen dira liburu honetan, katalana, galiziarra eta euskalduna, ordena horretan. Literatura hauek elkarrekin dituzten berdintasun eta diferentzietatik aztertzeke beste liburu oso baterako materiala eskaintzen digute liburu honetan barneratutako artikuluek. Hala ere, konparapen honek gidatuko du gure kritika, liburu bere osotasunean aurkeztu eta irazkitzeko berau baitugu biderik emankorren.

Lehen irakurraldi batean, hiru ezaugarri nagusi komunean agertzen dizkigute hiru literatur tradiziook. Lehenik, hiru literaturek dagite aipu, motz edo luzeagoa, Erdi Aroan emakumezkoen literaturek izan zuten lehen loratzeari. Sekzio katalanak artikulua oso bat du Erdi Aroko “trobairitz” edota emakumezko trobadoreei buruz (Isabel de